



HAL
open science

Euskal "genitiboen" semantikarantz meronomien ildotik

Michel Aurnague

► **To cite this version:**

Michel Aurnague. Euskal "genitiboen" semantikarantz meronomien ildotik. Gogoia, 2002, II (1), pp.69-84. artxibo-00000036v2

HAL Id: artxibo-00000036

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00000036v2>

Submitted on 28 Nov 2005

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Euskal "genitiboen" semantizarantz meronomien ildotik

Mixel Aurnague Miguelgorry

Equipe de Recherche en Syntaxe et Sémantique
(UMR 5610-CNRS, Toulouse-Tolosa) & Institute for Logic,
Cognition, Language and Information (Donostia-San Sebastián)

Abstract

This semantic study tackles the uses of Basque locative and possessive genitives that call for part-whole relations (meronomies). Observing data mostly extracted from corpuses, we show that the distribution of these markers can be explained on the basis of notions such as typical configuration and dependence. The proposed analysis is then compared with the results of other works, mainly morphosyntactical. Several clues about the relations between meronomies and other semantic and cognitive notions (localization/inclusion, "possession", ontology of spatial entities) that this study of Basque genitives provides are finally settled.

0. Sarrera¹

Euskarak, izen edo izen multzoak lotzen dituzten bi motatako joskera "genitibo" ditu, (*r*)*en* edo *ko* kasuen bidez eratuak :

- (1) *Anttonen zakua*
- (2) *baratzeko pikoa*

Euskararen gramatika eta deskribapen garaikideetan, (*r*)*en* markagailua, edutezko genitibo (Allières, 1979 ; Lafitte, 1944/1979), lehen genitibo (Lafon, 1965/1999) edo (soilik) genitibotzat (Euskaltzaindia, 1993) jotzen da, *ko*, bere aldetik, lekuzko genitibo (Allières, 1979 ; Euskaltzaindia, 1993 ; Lafitte, 1944/1979) edo bigarren genitibo (Lafon, 1965/1999) bezala hartzen delarik. Halere, markagailu horien erabiltze baldintzak gutxitan dira zehaztuak, R. Lafon-en analisiak (1965/1999) haien eduki semantikoa definitzeko saio interesgarri eta baliosa eskaintzen badu ere. Gramatika sortzailearen tradizioan sartzen diren zenbait lan berriagok (Eguzkitza, 1993, 2001 ; de Rijk, 1993 ; Trask, 1985), (*r*)*en* eta *koren* alderdi morfosintaktikoak arakatu dituzte, honelako ondorioetara etorriz : lehenbiziko markagailuak ((*r*)*en*) berezko flexio bezala funtzionatzen badu - lexiko unitatei "zuzenki" eransten ahal zaielako -², bigarrenak (*ko*) aldiz eratorpenezko izaera du, aurretik flexionatuak izan diren elementuekin lotzen baita (elementu horiek estatus preposizionala dutelarik). Lan "estruktural" horiek, ez dira,

¹ Eskerrak lan hau irakurri duten bi txostengile anonimoei, beren zuzenketa eta ohar zehatzak biziki baliagarriak izan zaizkigulako.

² Hau litzateke beraz egiazko genitibo bakarra.

halere, nahikoak, bi izenen aitzinean, markagailu horietarik zein erabiltzen ahalko den (diren) iragarri nahi bada : azpian diharduten baldintza semantikoak agerian jartzea behar-beharrezkoa dirudi.

Euskal genitiboen alderdi semantikoei gara preseski interesatu eta erabilpen guziak hastapenetik ikertu ordez, zuhurragoa iduritu zaigu gure gogoetak espazioaren alorrari murriztea, eta zehatzago parte-oso erlazioen - hau da, meronomien - adierazpenari. Hor dugu, alabaina, aski ongi mugatua izan den gaia, eskainiak izan zaizkion hainbat ikerketaren bitartez, dela hizkuntzalaritzan, dela psikologian, filosofian edo adimen artifizialean (Cruse, 1986 ; Iris *et al.*, 1988 ; Pribbenow, 1995 ; Tversky, 1986, 1990 ; Vieu, 1991 ; Winston *et al.*, 1987). Honela, L. Vieu-rekin egin dugun lan batean (Aurnague *et al.*, 1997 ; Aurnague & Vieu, argitaratzekoa), hizkuntz deskribapenen azpian diren sei parte-oso erlazio bereizi ahal izan ditugu :

- a) "atal-oso" (adib. : *beribilaren errota/gurpila, ordenagailuaren teklatura*),
- b) "puska-oso" (adib. : *mendiaren gaina, gatiluaren pusketa bat*),
- c) "zati-oso" (adib. : *bixkotxaren zati bat, baso bat arno honetatik*),
- d) "gai-oso" (adib. : *koktel honen rona, zimendu honen harea*),

- e) "elementu-multzo" (adib. : *artaldeko ardi bat, sortako karta bat*),
- f) eta "azpimultzo-multzo" (adib. : *artaldeko ardi beltzak, orkestraren hariak*).

Parte gehienak osoak definitzen duen esparruan kokatuak direlako eta (entitateen arteko) erlazio hori inesiboaren bitartez maiz deskriba daitekeelako, euskararen gramatika tradizionalak, baita gramatika sortzailearen inguruko lanek ere, lekuzko genitiboaren erabilpena onartuko lukete meronomia kasu horietan. Aldi berean, parte eta osoaren arteko "edukitze" edo "jabetza"zko lotura baten existentzian oinarrituz, edutezko genitiboaren erabilpen zabal bat ondorioztatuko lukete. Alta, corpusetatik ateratako datuek (Leizarraga, 1571/1995 (adibideetan "Lei" bezala agertzen dena) ; Axular, 1643/1995 (Axu) ; Duvoisin, 1858/1996 (Duv) ; Atxaga, 1995 (Atx) ; Etxamendi, 1988 (Etx) ; Lur, 1991-1994 (Lur) ; Sarasola, 1996 (Sar)) eta hiztunen artean eginiko inkesta batek, erakustera ematen dute konfigurazio meronomikoak ez direla, sistematikoki eta axolarik gabe, aipaturiko bi genitiboen bidez azaltzen eta, aitzitik, banaketa konplexu eta korapilatsu baten aitzinean gaudela. Ondoko lerroetan, bilduak izan diren zenbait datu aurkezten ditugu eta genitiboen erabilpena arautzen duten hainbat baldintza semantiko argitzen saiatzen gara.

"Atal-oso" erlazioak adierazten dituzten joskera/esaera genitiboak zehazki azaldu eta arakatu ondoren (lehenbiziko hiru

atalak), aurkitutako emaitzak beste motatako meronomiekin bat datozela erakusten dugu (laugarren parte), eta genitiboei buruz eginak izan diren hainbat lanekin alderatzen ditugu (bostgarren parte). Azkenean (seigarren parte), azaldutako kontzeptu eta tresnen garrantzia azpimarratzen dugu, bai parte-oso erlazioen teoriaren aldetik, baita, orokorrago, espazio eta "jabetza"ren ikerketen ikuspuntutik ere.

1. Atal-osoak eta genitiboak : corpusetako banaketa

"Atal-oso" erlazioek entitate-osoan funtzio bat betetzen duten parteak eskatzen dituzte, parte horren mugak aski ongi definituak direlarik. Mota hartako erlazioak deskribatzen dituzten esaldiek, lekuzko eta edutezko genitiboen distribuzio edo banaketa berezia erakusten dute.

Entitate-osoak objektu naturala denean, parte (iraunkor) batekin duen harremana edutezko genitibo baten bidez deskribatzen da kasik beti ((3-4) ; *??ko*) eta mota bereko joskera erabiltzen da artefaktu klase batzuentzat ((5-6) ; *??ko*). Objektu izaera duten beste entitate-oso batzuentzat aldiz, genitibo bat edo bestea hautatzea posible dirudi (7-10) - idatzi zaharrek edutezko genitiboaren aldeko joera agertzen duten arren (7-8) -.

(3) *ogi zohiaren lastoa* (Duv)

(4) *zuhaitzaren erroari/ondoari kheinatua dagokala*
(Axu)

(5) *ezpataren ahoz* (Lei)

- (6) *sardearen/aizkoraren giderra* (Sar)
- (7) *orgaren edo gurdiaren arroda bezala* (Axu)
- (8) *untziaren belak* (Axu)
- (9) *bizikletako aulkian* (Sar)
- (10) *autobuseko leihoaren bestaldean* (Atx)

Entitate-osoak izen arrunt batez izendaturiko eraikin edo etxea delarik, deskribapen gehienak lekuzko genitiboaz baliatzen dira (11-12) baina edutezko egitura baztertu gabe (13-14)³. Entitate-osoak (eraikina) izen propio batek identifikatzen badu berriz, lekuzko genitibodun joskerak dira onartzen diren bakarrak ((15-16); **ren*).

- (11) *templeko pinakle gainean* (Lei)
- (12) *etxeke ateak* (Axu)
- (13) *etxolaren lastozko estalkia* (Sar)
- (14) *geltokiaren hormak* (Atx)
- (15) *Gilentegiko behitegian* (Etx)
- (16) *Bidondoko leihoak*

Eraikinak ez diren leku geografikoen kasuan azkenik (izen arrunt edo propioz izendatuak), haien parteekiko lotura lekuzko genitiboaren bidez adierazten da ia beti (**ren*) :

- (17) *herriko plaza* (Sar)
- (18) *ibarreko pentzeak/belardiak*

³ Pentsa dezakegunaren kontra, edutezkoaren erabiltzeko joera hau ez da hain berria eta hizkuntzalaritzako lan zaharragoetan seinalatua izan da. Honela - eta H. Gavel-en aztarnak segituz - R. Lafon-ek (1965/1999) ohartarazten du Zuberotarrak badituela horrelako joskerak edo esaerak (adib. : *etxe horien borthak*).

(19) *Jerichoko murrak* (Lei)

(20) *Barcelonako tren geltoki hartan* (Atx)

Banaketa horien azterketa sakonago batek (Aurnague, 1998), bi genitiboen azpian dauden tasunak eta baldintzak argitzen laguntzen du (meronomiekin zerikusia duten deskribapenentzat bederen). Analisi horren ondorio nagusiak laburbiltzen ditugu ondoko bi ataletan.

2. Atal-osoak eta lekuzko genitiboa : konfigurazio tipikoak

Leku geografikoen ezaugarriak dituzten entitate-osoek (eraikinak barne : (11-20)) lekuzko genitiboa sistematikoki onartzeko arrazoia, entitate horiek definitzen dituzten espazio pusketan datza (lur azalari atxikiak direnak) eta bereziki (espazio) gune horiek beste elementuen kokatzeko/lokalizatzeko duten ahalmenean -inklusio/edukitze erlazio baten bidez - (Vieu, 1991) : belarrean pausatu gabe ere, pentze edo belardi batean (entitate-kokatzailea) hegaz ari den txori bat (entitate-kokatua) pentze hortan dagoela erran daiteke (pentzea ez da beraz lur edo belar eremua/azalera soilik baina hari datxekion espazio puska ere). Espazio gune horiez gain, esparru Lurtarrekiko gelditasuna kontuan hartzen bada, ez da harritu behar entitate geografikoak "leku" kontzeptu orokorrago baten adibide esanguratsuen baldin badira, kontzeptu horrek *gain*, *hegi/bazter/ertz* edo *erdi* bezalako Barne Lokalizazio Izenez

(BLI)⁴ izendaturiko entitateak bere baitan hartzen dituelarik (Aurnague, 1996, 1998, 2001).

Lekuzko genitiboa onartzen duten (7-10) eta ez duten (3-6) objektuak, irizpide beretsuarekin bereiz daitezke, lehenbizikoek dutelako bakarrik edukitzeko (adib. : armairu, beribil), eusteko (adib. : kadera/aulki, txirrindu) edo errutina sozialetan aritzeko (adib. : lan-mahai, piano) (Vandeloise, 1988) gaitasun funtzionala. Azpimarratzekoa da hemen, artefaktu gehienak ez bezala (7-10), entitate naturalak ez direla gisa horretako helburu funtzionalen betetzeko eginak/sortuak (eta ondorioz ez dutela lekuzko genitiborik hartzen (3-4)).

Laburbilduz, lekuzko genitiboaren erabilpena, entitate-osoaren konfigurazio zehatz batzuetan (inklusioa/edukitzea, eustea, errutina soziala) - kokatzaile bezala - funtzionatzen ahal duelarik onartua da : entitate horiek (leku guztiak eta zenbait objektu) "konfigurazional"tzat joko ditugu.

Urrunago joan gabe, inesiboaren interpretazioa ere, azalduak izan diren hiru konfigurazio edo espazio-erlazioetan oinarritzen dela ohartarazi nahi genuke (adib. : *armairuan, kaderan/aulkian, pianoan*) (Aurnague, 1999). Inesiboaren eta

⁴ "Barne Lokalizazio Izen", frantsesezko zenbait lanetan erabilia izan den "Nom de Localisation Interne" terminotik itzulia da. Erran behar da haatik, markagailu-mota honi hainbat izen ezarri izan zaiola hizkuntzalaritzako ikerketetan zehar (adib. : spatial nouns, location nouns, kokapen-izenak). Zenbait aldiz, ohizko gramatiketan zabalduagoa den "postposizio" hitza ere sartuko dugu, terminologia honek dituen akatsak ongi jakin arren. Alabaina, eta zehazki erakutsia izan den bezala (Eguzkitza, 1998, 2001), "postposizio" hitza "berezko" kasuak (absolutiboa, ergatiboa, datiboa, (edutezko) genitiboa, instrumentala) ez diren flexioentzat (hau da, lekuzko kasuentzat) hobe liteke atxiki.

lekuzko genitiboaren parekotasun semantiko hau, aurretik aipatu ditugun lan morfosintaktikoen hipotesiekin alderatu behar da (ikus sarrera) : ikerketa horien arabera, bigarren markagailua (lekuzko genitiboa) ez litzateke berezko flexio bat (unitate lexikalei zuzenki lotua), baizik eta eratorpenezko elementu bat, lekuzko kasuei erants lekiekeena (*etxekok* honelako egitura luke azpian⁵ : *etxe(a)ngo/ko*, hau da *etxe* + *inesiboa* + lekuzko genitiboa)⁶ eta, orokorrago, preposizio-sintagmei (Eguzkitza, 1993, 2001 ; de Rijk, 1993 ; Trask, 1985).

3. Atal-osoak eta edutezko genitiboa : dependentziak

Edutezko genitiboaren banaketa hainbat dependentzia-noziotan oinarritzen dela dirudi.

Dependentzia funtzionalak, entitateen funtzioek eragindako (entitaten arteko) loturak eta harremanei dagozkie. Meronomien azterketak (Aurnague & Vieu, argitaratzekoa) dependentzia-mota desberdinak bereiz daitezkeela erakutsi du, dependentzia horiek sortzen eta finkatzen diren arabera :

- a) egoera batzuetan, atalaren funtzioa, entitate-osoari dagokion funtzioaren kasu berezi bat baizik ez da

⁵ Mugimendurik gabeko testuinguruetan bederen (espazio mugiezkorra/geldia).

⁶ Interpretazio honetaz gain, adiera mugagabea edo generikoa ukan lezake *etxekok* (*etxeko jaun* bezalako hitz-elkarteetan konparazioe), azpiko beste egitura bat (*etxe* + lekuzko genitiboa) hartuko lukeena (Eguzkitza, 1993, 2001). Horrelako erabilpenik ez dugu aztertzen lan honetan.

(adib. : ordulari bat (denboraren neurketa) eta agintemahai bat (neurketak)) ;

- b) beste zenbait kasutan, partearen funtzioak berekin ekartzen du entitate-oso berezi batekilako lotura (adib. : eskuleku → entitate mugikorra (ate, zaku, tresna, eta abar)) ;
- c) hirugarren dependentzia-motak, aurrekoaren alderantzizko eskemari jarraitzen dio, osoaren funtzioak baitu agintzen partearen presentzia (adib. : eraikina → paretak) ;
- d) ez da bakana, haatik, bi (alderantzizko) mekanismo horiek (b eta c) aldi berean gertatzea (adib. : tinta-kartutxo → luma eta luma → tinta-kartutxo) ;
- e) hemen aipatuko dugun azken kasuan, partearen funtzioak eta entitate-osoarenak - bakoitzak bere aldetik - hirugarren entitate baten existentzia eragiten dute, partea baino handiagoa dena baina, denbora berean, osoaren barruan kokatua (adib. : leiho → pareta eta eraikin → pareta).

Parteak - dependentzia funtzional baten bidez - entitate-osoan eginkizun bat betetzen duenean, edutezko genitiboaren erabilpena posible dirudi. Hau, objektu guziekin gertatzen da (entitate naturalak edo artefaktuak ; (3-10)) baita eraikinekin ere (izen arrunten bidez identifikatuz geroz ; (11-14)). Ohartaraz dezagun azken hauek (eraikinek) - objektuak bezala -, ongi

mugatuak diren parteak dituztela maiz, eta parte horiek osoarekiko lotura funtzional bat agertzen dutela.

Eraikinak ez diren lekuentzako ostera, edutezko genitiboaren erabilpena baztertzeko da askotan (17-18), parteak entitate-osoaren funtzionamenduan duen ekarpena ezin delako behar bezala zehaztu. Honela, lehenbizikoak (parteak) berezko funtzio bat duelarik (adib. : xendra/zidorra), usu gertatzen da bigarrenaren (osoaren) eginkizuna batere argia ez izatea (adib. : oihana), dependentzia funtzional baten sortzea bertan oztopatuz (adib. : *gure oihan-eko/*aren xendra*). Hala eta guztiz, hautaturiko bi lekuek (eraikinez bestekoak) harreman funtzional gardenago bat dutelarik, edutezko genitiboa errezago onar daiteke (lekuzko genitiboak lehentasuna atxikitzen badu ere), atzemandako faktorearen garrantzia (dependentzia funtzionala) berretsiz :

(21) *sumendiaren kratera* (Lur)

(22) *zubiaren makoak* (Sar)

Beste behaketa batzuek ere dependentzia funtzionalek duten papera frogatzen dute (Aurnague, 1998). Ohartarazi behar da, adibidez, edutezko genitiboaren erabilpena zabalagoa eta ugariagoa dela "beharrezko" parteentzat (adib. : motore-beribil), parte "gertagarri" edo "kontingente"entzat baino (adib. : ate-beribil) (hiztunen arteko galdeketa). Hari beretik, entitateen arteko dependentzia funtzionalek edutezko genitiboaren

erabiltzera eraman lezakete, nahiz azaldutako konfigurazioa meronomia "garbi" bat ez izan :

(23) *batelaren kordak* (Lei)

(24) *txaluparen arrauak* (A Xu)

Dependentzia funtzionalak ez dira, halere, edutezko joskerak baldintzatzen dituzten bakarrak. Honela, entitate naturalen parteak izendatzean edutezko genitiboak agertzen duen nagusitasunak edo eskusibak (3-4), markagailu honek, parte osoaren esparruan/baitan sortu den ala ez kontuan hartzen duela erakustera ematen du. Parte naturalek izaten dituzte, hain zuzen ere, doakien osoarekiko dependentzia genesikoak (dependentzia existentzial mota bat direnak) eta, hortaz, artefaktuetatik nabarmenki desberdintzen dira (dependentzia horiek partetik osora doaz). Parte, entitate-osoaren elementu iraunkor bat delarik (adib. : zuhaitz baten enborra), osotik partera doan dependentzia bat gehitzen zaio hastapeneko dependentzia genesikoari, eta lekuzko genitiboaren erabilpena kasik baztertuta gelditzen da (??*zuhaitzako enborra*). Azken puntu honek, bestalde, (partearen) iraunkortasuna, dependentziak indartzen edo ahultzen ahal dituen faktorea dela adierazten du (Aurnague, 1998).

4. Genitiboak eta meronomien deskribapena : karakterizazio semantiko baterantz

"Atal-oso" erlazioetatik at, konfigurazio tipiko eta dependentzia kontzeptuek, gainerateko meronomientzat agertzen den - lekuzko eta edutezko genitiboen - banaketa ere eraentzen dutela dirudi (Aurnague, 1998).

"Puska-oso" meronomiei edo, zehatzago, Barne Lokalizatorako Izenei (BLI ; adib. : *gain, hegi/bazter/ertz, erdi*) dagokienez, elkartzen diren (entitate) izenekin duten dependentzia erreferentzial handiak (existentzi dependentzia hau ere) (Aurnague, 1996, 1998, 2001)⁷ du, seguraski, edutezko genitibo (25-27) edo alborakuntzaren (28) erabilpen zabala eragiten (BLIa eta entitate izena uztartzerakoan) :

(25) *lurraren hondarrean* (A Xu)

(26) *tronoaren eskuinean* (Lei)

(27) *oihalaren bazterra* (A Xu)

(28) *bide erdian* (Sar)

BLIek edo postposizioek (josten zitzaien izenekin batean) izendatzen dituzten entitateek espazio puskak/guneak barne hartzen dituztelako⁸ eta gune horiek, entitate-osoari doakion

⁷ Dependentzia erreferentzial hau, entitate-osoak identifikatzen duen izenaren erabiltzera behartzen duten BLIdun joskeretan antzeman daiteke bereziki (*Hau botoila-(h)ondo/?(h)ondo bat da ; Gotorleku batean sartu ginen. Dorre-gainak/??Gainak ikusgarriak ziren*). Atal izenek ez dute horrelako baldintzarik galdegiten eta entitate-osoekiko askatasun erreferentzial handiagoa erakusten dute (*Hau errota/gurpil bat da ; Gotorleku batean sartu ginen. Teilatuak ikusgarriak ziren*).

⁸ *Atearen gaina zikina da* bezalako perpaus batek, adibidez, atearen (berezko) parte baten egoera adieraz lezake, baita, atiaz goragoko pareta-zati batena ere (atearen parte ez dena funtsean baina goiko gune horretan aukitzen dena). Era berean, *Zakua*

erreferentzi esparruan geldiak direnez gero, "leku" nozioaren baldintzak betetzen direla baieztatu daitezke (ikus 2. atala). BLIen edukin semantikoa guziz kokatzailea edo lokalizatzailea izanik⁹, lexema horiek - entitate geografikoak identifikatzen dituzten izen propioak bezala (cf. (15-16) eta (19-20)) - "leku zehaztu/espezifikatu"ei aplikatzen direla gaineratu behar da (leku horietan beste elementu batzuk inklusio-erlazioaren bidez koka daitezkeelarik). Beraz, konfigurazio tipiko (eta bereziki, hemen, inklusio) eta zehazpen/espezifikazio nozioen eragin bateratuari esker, argiago ikusten da zergatik *Oso-BLI* izen-sintagmek lekuzko genitiboa hartzen duten, edutezko markagailua baino (*??ren*) :

(29) *zerraren erdiko hortzak*

(30) *zuhaitzaren gaineko adarrak*

"Elementu-multzo" erlazioen kasuan, elementu arrunt baten eta entitate-osoaren (multzoaren) arteko dependentzia - genesikoa eta funtzionala - txikia edo minimoa dela ematen du (Aurnague, 2001, Aurnague & Vieu, argitaratzekoa)¹⁰.

txirrinduaren gibelean da entzunez, delako zakua txirrinduaren atal batean dela pentsa daitezke (txirrinduari ukituz ; adib. : puskaketakoan/ekipaje-tokian) edota soilik txirrinduetik hurbil (kontakturik gabe, adib. : lurrian). Adibide horien bitartez, BLIek entita-osoaren parte (material) bat mugatzen dutela hautematen da, baita parte horri datzekion espazio puska bat ere (materiagabea).

⁹ BLIen edukinak partearen kokapena (entitate-osoan) argitzen duten xehetasunak eskaintzen ditu maiz. Argibide espazial horiek, norabide (adib. : *gain, aitzin, ezker*), topologia (adib. : *barne, hegi/bazter/ertz, zoko*) edo distantziari (adib. : *erdi, buru/mutur*) lotuak izan daitezke.

¹⁰ Hain zuzen ere, partearen existentzia ez da, anitzetan, osoarenari hain lotua (dependentzia genesikoa) eta multzoarekiko kideza elementu guzientzat berdintsuak diren ezaugarrietan (ezaugarri funtzionaletan besteak beste) oinarritua da. Horrek elementu arruntan eta multzoaren arteko lotura "hutsaltzen" du nolabait.

Multzoek beren elementuekiko agertzen duten nolabaiteko autonomia horrek, lehenbizikoak (multzoak) entitate aske bezala ikustera garamatza, haien baitan beste entitate batzuk (ordezkagarriak) koka litezkelarik. Hortik heldu da, agian, elementu arrunt baten aipatzerakoan, lekuzko genitiboaren erabiltzeko dugun joera (**ren*) :

(31) *Bilboko Athletic Club taldeko jokalaria* (Lur)

(32) *E.A.J.ko militantea* (Lur)

Aitzitik, elementu zehatz batean arreta jartzeak - multzoan duen eginkizun berezia azpimarratuz -, parte eta osoaren arteko dependentzia funtzionala indartzen du, eta horrek, edutezko genitiboaren sartzeko aukera dakar (33-34), lekuzko markagailuaren ondoan (35) :

(33) *Euskal-Herriko alkateen batzordearen buru* (Lur)

(34) *erbesteko jaurlaritzaren lehendakaria* (Lur)

(35) *Ekintza Katolikoaren Gazteriako buru* (Lur)

Behatuko ditugun azken adibideak, "gai-oso" motako meronomiak adierazten dituztenak dira. Ohartaraz dezagun lehenik, gaiak elkarrengandik desberdintzen dituzten ezaugarriak dituztela maiz (zaporeari lotuak, sendagarriak, eta abar), tasun horiek gai bakoitzari estatus edo eginkizun berezia ematen diotelarik entitate-osoan. Dependentzia funtzional horri, beste bat gehitzen zaio entitate naturalentzat, hots, lehenago aipatu dugun dependentzia genesikoa. Dependentzia guzi horiek

ikusita, ez da harritzekoa, beraz, gai eta oso baten arteko erlazioa, edutezko genitibo baten bidez azaltzen ahal bada :

(36) *saltsa baten osagaiak* (Sar)

(37) *gaztaren osagai nagusiak* (Lur)

(38) *arbolaren zura* (Duv)

(39) *mahatsaren jusa/zukua* (Sar)

Baina gaiez osatutako entitate-osoak - aldi berean eta anitz hizkuntzatan - "edukitze" erako nozio batekin lotuak dira (*edari baten alkohol edukia* (Sar), *gai edo janari bat(ek) barnean duen ura edo isurkaria* (Sar)), eta horrek, parte edo gaiek ukan litzaketen hainbat ezaugarriekin batera (adib. : izaera gertagarria/kontingentea, gehiketa edo erauzketa ekintza, osoarekiko banaketa ez homogeneoa), lekuzko genitiboaren erabilpen paraleloa errazten du frankotan (Aurnague, 1998).

5. Lekuzko eta edutezko genitiboak : esanahi zehatza versus lausoa ?

Erlazio meronomikoak adierazten dituzten euskarazko joskera genitiboen azterketak (Aurnague, 1998), bi ondorio nagusi dakartza : lekuzko genitiboaren erabilpena, entitate-osoak konfigurazio tipikoetan (inklusioa/edukitzea, eustea, errutina soziala) aritzeko duen gaitasunean badatza, edutezko genitiboaren funtzionamendua, aldiz, parte eta osoaren arteko hainbat dependentziak (dependentzia funtzionalek, genesikoek, eta abar) eraentzen dute. Oso zaila litzateke - edo berdin

ezinezkoa -, gure ustez, bi "kasu" horiek usaiako "markatze" irizpideez bereiztea, izaera markatua/ez-markatua, hautatzen den parte-oso erlazioaren arabera, baita agertzen diren entitate klaseen arabera, aldatzen delako : "atal-oso" erlazioen kasuan, adibidez, eta eraikin edo entitate mistoekin joanez gero, lekuzko genitiboa ez da markatua (edutezko genitiboa markatua delarik : (11-14)) ; objektuei aplikatzen bada, ordea, estatus markatua hartzen du (edutezko genitiboa elementu ez-markatua bihurtzen da ; (7-10)). Orokorrago, eta dependentziaren ideia lehen mailan ezartzen duelako, edutezko genitiboak harreman meronomikoak gehiago azpimarratzen ditu lekuzko genitiboak baino : azken honek, aipatzen diren entitateen "kolokalizazio" hutsa adieraziko luke, hau da parte eta osoaren arteko inklusio egoera (edo, hobeki errateko, haien espazio erreferenteen inklusioa). Denbora berean, edutezko genitiboaren edukin semantikoa zehatzagoa eta baldintzatuagoa agertzen da lekuzkoarena baino.

Baldintza semantiko eta erreferentzial garrantz horiek direla eta, aitortu behar dugu ez gatozela bat R. Lafon-en lanean (1965/1999) eskaintzen diren zenbait proposamenekin eta bereziki, edutezko genitiboak «esanahi lausoagoa duela» (lekuzko genitiboak baino) edo «zehazten ez den erlazioa adierazten duela» ondorioztatzen delarik. Ezin daiteke, beraz, markagailu honen funtzioa lokailu sintaktiko soiltzat hartu edota «balio gramatikal hutsa» duen elementu gisa ikusi (egileak edutezko markagailua "erlaziozko genitibo"tzat jotzen du). R.

Lafon-en arabera, lekuzko genitiboak «balio zehatzagoa du» (edutezko genitiboak baino), «izaera bereizgarria adierazten duen» neurrian eta «mota edo klase» bateko elementuak izendatzen dituen heinean («izakiz edo gauzaz osaturiko klaseak» eraikitzen ditu). Lekuzko genitiboak «zehaztasun handiagoarekin» «determinatuko» luke, ondorioz, edutezko genitiboak baino. Ohartarazi behar da halere, R. Lafon-en analisisia, genitiboek uztartzen dituzten izen edo izen-sintagmen behaketan dela nagusiki oinarritua, elementu horien artean sortzen den lotura semantikoari arreta guti eskaintzen zaiolarik (determinazio noziotik aparte). Modu horretan, eta edutezko genitiboari ematen zaion ustezko izaera lauso eta gramatikala justifikatu nahiz, egileak gogora ekartzen du markagailu horrek, postposizioak, ekintza-izenak edo ezaugarri fisiko eta moralak azaltzen laguntzen duela. Edutezko genitiboaren semantika atzematea, lekuzkoarena baino zailagoa badirudi ere (hortaz abstraktuagoa eta konplexuagoa litzateke baina, inola ez, lausoagoa), adierazten diren erlazioen behaketa sakonago batek (lotzen diren elementuen azterketa hutsetik at) argituko zituzkeen, dudarik gabe, edutezko markagailuaren azpian diharduten baldintza eta ezaugarri zehatzak (Aurnague, 2001).

Gure emaitza semantikoak, ostera, morfosintaxian egindako lanen osagarri dira (Eguzkitza, 1993, 2001 ; de Rijk, 1993 ; Trask, 1985), alor horietako datuak bi puntutan bederen elkartzen edo adosten direlako. Jadanik seinlatu dugun bezala,

(aztertutako) lekuzko genitiboek eta inesiboak dituzten harreman semantiko estuek - konfigurazio tipikoaren nozioan oinarrituak -, bat egiten dute lehenbiziko markagailua, eratorpenezko kasua dela (erran nahi baita, aurretik flexionatutako izenekin uztartua) defenditzen duten hipotesiekin (inesiboa da preseski, lekuzko genitiboaren azpian egon daitezkeen kasuetariko bat). Bestalde, edutezko genitiboa, hainbat dependentzia kontzepturekin lotua izateak - eta, ondorioz, edukin semantiko hain baldintzatua agertzeak -, kasu hau, berezko kasu flexionala dela berresten du, errol semantikoak esleitzeko gai litzatekeena eta izen gobernatzaile baten osagarriak seinalatuko lituzkeena (Eguzkitza, 1993, 2001).

6. Ondorio eta perspektibak : meronomiak, lokalizazioa/kokatzea eta "jabetza"

Euskal genitiboei buruzko lan honek modu berri batez argitzen ditu meronomien eta hainbat nozio semantiko eta kognitiboen arteko loturak - lokalizazio/inklusioa eta "jabetza"rekilakoak besteak beste - (Winston *et al.*, 1987). Zenbait zantzu eta seinale eskaintzen ditu ere, entitateen artean hizkuntzak egiten dituen bereizketak eta hauek meronomien funtzionamenduan lituzketen eraginen inguruan.

6.1. Meronomiak eta lokalizazioa

Aurreko lerroetan ikusi ahal izan dugunez, lekuzko genitiboaren erabilpenak, parte-oso erlazio mordo bat adieraz litzake eta, zenbait aldiz, horrelako joskeretan sar daitekeen kasu bakarra da (leku zehaztuen/espezifikatuen adibidea : entitate geografikoen izen propioak (15-16 ; 19-20), *Oso+BLI* izen-sintagmak (29-30)). Erran dugu, bestalde, markagailu horren semantikak - konfigurazio tipikoetan sustraitua - partearen lokalizazioa/kokatzea (entitate-osoan) azpimarratzen duela, bi elementuen arteko harreman meronomikoa benetan seinalatzen ez duelarik. Horrelako esaldiek, meronomien bitartez interpretatzen diren arren, anbiguotasun maila bat erakusten dute behin baino gehiagotan : beti posible da, adibidez, *beribileko errota/gurpila* edo *etxeko teilak* bezalako deskribapenen aitzinean, delako errota edo teilak, aipatzen diren entitate-kokatzailuetan (beribilean, etxean) aurkitzen direla (soilik) ulertzea - adib. : ordezeko errota edo ganerrear atxikitzen ditudan teila zaharrak -, zinezko parteak izan gabe (edutezko genitiboak aipatutako anbiguotasuna kenduko luke). Munduari buruzko jakintza eta genitiboari doazkien baldintza ontologikoei esker (adib. : eraikinek lekuzko genitiboaren alde duten joera), haatik, aipatutako entitateak, kolokalizazio edo berdin meronomia egoera batean direla ondorioztatzen ahal da.

Emitza horiek, frantsesari buruz eginak izan diren beste behaketa batzuekin alderatu behar dira. Honela, L. Vieu-k

(1991) erakutsi du *dans* preposizioaren zenbait erabilpenek konfigurazio meronomiko bat adieraz lezaketela entitate kokatu eta kokatzailearen artean (adib. : *Le cerveau est dans la tête* (burumuina buruan da)). Horrelako deskribapenak, "kontraste-printzipio" batean oinarrituak dira, printzipio honen bidez entitate-kokatzailea entitate-kokaturik gabe ikus/irudika daitekeelarik, bigarrena (kokatua) lehenbizikoan (kokatzailean) lokalizatzeko gisan (Vieu, 1991). Eginmolde hau ez da, berez, *dans* preposizioari lotua eta beste preposizio edo lokuzio preposizionalak hartzen dituzten deskribapenetan antzeman daiteke (adib. : *Les touches sont sur le clavier* (teklak teklatuan dira) ; *Le phare est à l'avant de la voiture* (argia beribilaren aitzinean da)) (Aurnague *et al.*, 1997). Entitate-kokatua kokatzailetik bananduz - kontraste-printzipioari esker - eta markagailu preposizional bat erabiliz, konfigurazioaren alderdi espazial hutsa azpimarratzen da hemen, beraren alde meronomikoa baino gehiago (Vieu, 1991). Beraz, frantsesa eta euskara puntu honetan batzen direla ematen du.

Goian lerrokaturiko datuek, hizkuntzak adierazten dituen erlazio meronomikoak, parte eta osoaren arteko kolokalizazio edo inklusio geometriko soilari ezin direla murriztu frogatzen dute, ezaugarri funtzional konplexuetan ere sustraitzen direla seinalatuz (nozio geometrikoez gain) (Aurnague *et al.*, 1997 ; Aurnague & Vieu, argitaratzekoa ; Vieu, 1991).

6.2. Meronomiak eta "jabetza"

Lan honetan aipatu diren dependentzia-nozioak, ezaugarri funtzional horien adibide ezin hobeak dira eta, baldintza espazialekin batera - geometriari buruzkoak alegia -, parte-oso erlazioen funtzionamendua eraentzen dute. Hainbat analisi linguistiko eta meronomikotan "jabetza"ren alor lausori egozten zaiona, hemen, dependentzien bidez eta zehaztasun handiagoz azaltzen da. Bestalde, edutezko genitiboaren semantikan dependentziek duten leku bereziak, argitzen du zergatik, markagailu horrek, konfigurazioen alderdi meronomikoa gehiago azpimarratzen duen lekuzko genitiboak baino.

Dependentzia (semantikoaren) kontzeptuak interes guti sortu du - orain arte behintzat - hizkuntzalaritzan, eta filosofoak izan dira, aspaldi samarretik, lan gehien eskaini diotenak, dependentzia "ontologikoen" artean bereizketak eginik besteak beste (orokorrak, bereziak, erreferentzialak, identitatezkoak, esentzialak/zurrinak, eta abar) (Audi, 1995). Alta, meronomien adierazpen hutsetik at, hizkuntzan diharduten dependentzia semantiko eta kognitiboaren azterketa zehatzak, joskeran anaforiko (Kleiber, 1999) eta "posesibo"etan (Chappell & McGregor, 1996; Heine, 1997; Koptjevskaja-Tamm, argitaratzekoa; Langacker, 1995; Taylor, 1996) agertzen diren zenbait fenomenoren ulerkuntza erraztuko luke (beste aplikazio posibleen artean).

Izan ere, gai horiei buruzko ikerketek (anafora asoziatibo eta "jabetza"ren adierazpenari lotutakoak alegia), autonomia semantiko guti duten hitzak (hots, erreferentzia mailan, beste elementuen menpe direnak) askotan aipatzen eta erabiltzen dituzte, modu desberdinez izendatuz : izen erlazionalak (zentzu zabalean), sinkategorematikoak, alienaezinak/besterenezinak, eta abar. Hurbiltze bakoitzaren arabera, izen horiek azpikategorietan banatzen dira : parte izenak (atal izenak gehienetan), izen "espazialak" (BLIak), izen erlazionalak - zentzu hertsian - ahaidetasun izenak barne (adib. : *aita, emaztea*), ezaugarri/egoera fisiko edo mentalak adierazten dituzten izenak (adib. : *etxearen zurtasuna*), prozesu edo ekintza izenak (adib. : *etxearen eraikitzea*). Halere, azpikategoria horiek agertzen dituzten diferentziak ez dira sistematikoki arakutzen (izen dependenteen klasea bere osotasunean hartzen da maiz) eta, seinalatuak direnean, behar bezalako azalpenekin ez datoz, behin baino gehiagotan.

Lan honetan hasi dugun dependentzien ikerketak (sakondu beharrekoa dudarik gabe), fenomeno garrantzitsu batzuen argitzera ahalbidetzen gaitu - parte izenen alorrean bereziki -, izen erlazional/sinkategorematikoen artean egin beharreko bereizketak frankotan erakutsiz. BLIei loturiko dependentzia erreferentziala, adibidez, izen horiek duten funtzionamendu anaforiko bereziaren erantzule agertzen da (adib. : *Plazan bazen gaztainondo handi bat. Enborra? Beherea huntzostoz estalia*

zen ; *Haritzaren enborra/beherea goroldioz estalia da baina ez gaztainondoarena*) (Aurnague, 1996, 1998, 2001). Parte eta osoen arteko dependentzia funtzional eta genesikoen aldebakarreko edo aldebiko izaerak aldiz - iraunkortasuna bezalako kontzeptuekin batera -, atal-osoan kategorian hainbat bereizketaren egitera eramaten du (adib. : motore-beribil versus ate-beribil ; enbor-zuhaitz versus ostozuhaitz). Dependentzia genesikoen, beren aldetik, artefaktu eta entitate naturalen arteko zenbait diferentzia argitaratu ekartzen dituzte (parte edo atalekiko harremanetan oinarrituak). Dependentziak dira baita ere (funtzionalak partikulazki), parte-oso erlazioek beste konfigurazio espazialekin dituzten ahaidetasun edo harreman estuak agerian jartzen dituztenak (cf. *aulans diaprojektor* (gelako erretroproiektorea (usaiakoa/iraunkorra)) bezalako (edutezko) joskerak suedieraz (Koptjevskaja-Tamm, argitaratzekoa), eta euskarazko *informazio bulegoaren mostradorea* (Atx) edota (23-24) adibideak).

Aipaturiko dependentziak (batez ere funtzionalak eta genesikoak) eta nozioak (adib. : iraunkortasuna) ez dira beti anafora, alienaezintasun eta jabetzari buruzko lanetatik kanpo gelditzen baina, askotan, bigarren maila batean agertzen dira, haien papera ez delarik batere argitzen edo arakatzen. Bada, alderdi horien sakontzea biziki baliagarria litzateke, hemen ikusi ditugun parte izenen ikerketatik at.

6.3. Meronomiak eta ontologia

Deskribapen meronomikoetan erabiltzen diren lekuzko eta edutezko genitiboen azterketak, entitateen artean hizkuntzak egiten dituen zenbait bereizketa erakustera ematen ditu (zeharka bada ere, hau da, konfigurazio tipiko eta dependentzia nozioen bitartez).

Honela, atal-osoan kasuan agertu den banaketa konplexuak (3-20), objektuak (*ren*, *?ko* ; (3-10)), leku geografikoak (eraikinez bestekoak : *ko*, *??ren* ; (17-20)) eta eraikinak edo entitate mistoak (*ko*, *ren* ; (11-14)) desberdinki tratatuak direla frogatzen du. Klasifikazio edo sailkapen hau ez da aitzinetik eta hizkuntzatik kanpo egina den zerbait, baina hizkuntzak berak entitateekiko duen ikuspuntuaren ondorioa. Entitate mistoek - berezko lekuak direnak baina, aldi berean, objektuen antzeko barne-egitura dutenak (ikus 3. atala) - puntu hau ongi irudiztatzen dute : izen arrunt baten bidez izendatuz gero leku (lekuzko genitiboa ; (11-12)) edo objektuen (edutezko genitiboa ; (13-14)) klaseekin dituzten parekotasunak azpimarratzen ahal badira, izen berezi bat erabili bezain sarri beren leku izaera bakarrik adieraz daiteke (derrigorrezko lekuzko genitiboa ; (15-16)).

Bereizketa horiek (objektuak, leku geografikoak, entitate mistoak) kolokan jarri gabe, euskararen eta frantsesaren Barne Lokalizazio Izenen (BLIen) ikerketa konparatuak (Aurnague, 1996, 1998, 2001) leku kontzeptu orokor baten definitzera

eraman gaitu, eta azken honek, lokalizazioaren zehazpen edo espezifikazioarekin batean (Vandeloise, 1988), BLIek eta leku geografikoen izen bereziek dituzten hainbat kidekotasun agertarazten ditu (bi markagailu-mota horiek "leku zehaztuak/espezifikatuak" izendatuko lituzkete ; cf. 2. eta 4. atalak). Gainera, BLIen behaketa horrek, espazio puska edo guneen papera erakusten du, baita entitate materialekin dituzten harremanak ere.

Baina genitiboen azterketak, hizkuntz deskribapenen azpian diren beste tasun ontologikoak argitara ekartzen ditu. Erran dugu, adibidez, elementuek multzoekiko duten nolabaiteko autonomiak, multzoen eta lekuen arteko parekotasun maila bat islatzen duela (euskaraz bederen). "Gai-oso"en inguruan bilduriko datuek, berriz, hauen (gaien) eta objektuen artean dauden zenbait antzekotasun erakustera ematen dituzte, L. Vieu-k (1991) entitate horiei buruz proposaturiko hipotesiak, neurri batean behintzat, baieztatuz.

Bereizketa ontologikoen arazo zabala agortu gabe, euskarazko genitiboen analisiak, meronomien adierazpena, entitateei eta beren ezaugarriei hertsiki lotua dela frogatzen du. Beraz, bere helburuak bete nahi baditu, erlazio meronomikoen ikerketak, entitate espazialen analisi ontologikoa nahitaez kontuan hartu beharko du.

Corpusak

- Atxaga B. 1995. *Zeru horiek*. Donostia-San Sebastián, Erein.
- Axular P. 1643/1995. *Gero*. Bilbo-Bilbao, Paideia.
- Duvoisin J.P. 1858/1996. *Laborantzako liburua*. Bilbo-Bilbao, Paideia.
- Etxamendi E. 1988. *Gilentegiko Gilen*. Donostia-San Sebastián, Gipuzkoako Kutzaren Argitarapenak.
- Leizarraga J. 1571/1995. *Testamentu berria*. Bilbo-Bilbao, Paideia.
- Lur 1991-1994. *Hiztegi enziklopedikoa*. Lur Argitaletxea.
- Sarasola I. 1996. *Euskal Hiztegia*. Donostia-San Sebastián, Kutxa Fundazioa.

Bibliografia

- Allières J. 1979. *Manuel pratique de basque*. Paris, Editions Picard (Collection Connaissance des Langues).
- Audi R. 1995. *The Cambridge dictionary of philosophy*. Cambridge, Cambridge University Press.
- Aurnague M. 1996. Les Noms de Localisation Interne : tentative de caractérisation sémantique à partir de données du basque et du français. *Cahiers de Lexicologie* 69 : 159-192.
- Aurnague M. 1998. Basque genitives and part-whole relations: typical configurations and dependences. *Carnets de Grammaire* 1.

- Aurnague M. 1999. Cas inessif du basque et connaissance du monde : l'expression de l'espace a-t-elle horreur du vide (sémantique) ?. In : Plénat M., Aurnague M., Condamines A., Maurel J.P., Molinier C., Muller C. (Ed) *L'emprise du sens : structures linguistiques et interprétations, Mélanges offerts à Andrée Borillo*. Amsterdam, Rodopi (Faux Titre 174), 19-44.
- Aurnague M. 2001. *Entités et relations dans les descriptions spatiales : l'espace et son expression en basque et en français*. Habilitation à Diriger les Recherches, Université de Toulouse-Le Mirail.
- Aurnague M. & Vieu L. argitaratzekoa. Modelling part-whole relations semantics: insights from Basque and French.
- Aurnague M., Vieu L. & Borillo A. 1997. Représentation formelle des concepts spatiaux dans la langue. In : Denis M. (Ed) *Langage et cognition spatiale*. Paris, Masson (Collection Sciences Cognitives), 69-102.
- Chappell H. & McGregor W. 1996. *The grammar of inalienability: a typological perspective on body-part terms and the part-whole relation*. Berlin, Mouton de Gruyter.
- Cruse D.A. 1986. *Lexical semantics*. Cambridge, Cambridge University Press.
- Eguzkitza A. 1993. Adnominals in the grammar of Basque. In : Hualde J.I., Ortiz de Urbina J. (Ed) *Generative studies in*

- Basque linguistics*. Amsterdam, John Benjamins (Current Issues in Linguistic Theory 105), 163-187.
- Eguzkitza A. 1998. Postposizioak euskal gramatikan. In : Túnez I., Arejita A., Isasi C. (Ed) *Studia philologiae in honorem Alfonso Irigoien*, Bilbo-Bilbao, Deustuko Unibertsitatea, 83-88.
- Eguzkitza A. 2001. Adnominalen markatzaileak euskal gramatikan. *Gogoa* I-1 : 73-80.
- Euskaltzaindia 1993. *Euskal gramatika laburra : perpaus bakuna*. Bilbo-Bilbao, Euskaltzaindia.
- Heine B. 1997. *Possession: Cognitive sources, forces and grammaticalization*. Cambridge, Cambridge University Press (Cambridge Studies in Linguistics 83).
- Iris M.A., Litowitz B.E. & Evens M. 1988. Problems of the part-whole relation. In : Walton Evens M. (Ed) *Relational models of the lexicon: representing knowledge in semantic networks*. Cambridge, Cambridge University Press, 261-288.
- Kleiber G. 1999. Anaphore associative et relation partie-tout : condition d'aliénation et principe de congruence ontologique. *Langue Française* 122 : 70-100.
- Koptjevskaja-Tamm M. argitaratzekoa. Adnominal possession in the European languages: form and function. *Sprachtypologie und Universalienforschung* (STUF).

- Lafitte P. 1944/1979. *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire), édition revue et corrigée*. Baiona-Bayonne, Ikas & Elkar.
- Lafon R. 1965/1999. Les deux génitifs du basque. *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris* LX : 131-159. *Iker* 11 (Vasconiana), Haritschelhar J., Charritton P. (Ed), Bilbo-Bilbao, Euskaltzaindia, 173-198.
- Langacker R.W. 1995. Possession and possessive constructions. In : Taylor J.R., MacLaury R.E (Ed) *Language and the cognitive construal of the world*. Berlin, Mouton de Gruyter, 51-79.
- Pribbenow S. 1995. Modelling physical objects: reasoning about different kinds of parts". In : Amsili P., Borillo M., Vieu L. (Ed) *Time, Space and Movement: meaning and knowledge in the sensible world*, Toulouse, LRC, 31-44 (Part C).
- de Rijk R.P.G. 1993. Basque hospitality and the suffixe -ko. In : Hualde J.I., Ortiz de Urbina J. (Ed) *Generative studies in Basque linguistics*. Amsterdam, John Benjamins (Current Issues in Linguistic Theory 105), 145-162.
- Taylor J.R. 1996. *Possessives in English: an exploration in cognitive grammar*. Oxford, Oxford University Press.
- Trask R.L. 1985. -ko atzizkia euskaraz. *Euskera* 30 : 165-173.

- Tversky B. 1986. Components and categorization. In : Craig C. (Ed), *Noun classes and categorization*. Amsterdam, John Benjamins (Typological Studies in Language, vol.7), 63-75.
- Tversky B. 1990. Where partonomies and taxonomies meet. In : Tsohatzidis S. (Ed), *Meanings and prototypes: studies in linguistic categorization*. New York, Routledge, 335-344.
- Vandeloise C. 1988. Les usages statiques de la préposition à. *Cahiers de Lexicologie* 53 : 119-148.
- Vieu L. 1991. *Sémantique des relations spatiales et inférences spatio-temporelles : une contribution à l'étude des structures formelles de l'espace en langage naturel*. Thèse de Doctorat, Université Paul Sabatier, Toulouse.
- Winston M., Chaffin R. & Herrmann D. 1987. A taxonomy of part-whole relations. *Cognitive Science* 11 : 417-444.